

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresaren balorezko proposamen kualitatiboa aulki gurgildunen motorren egokitzapena da, noski, pertsonalizatua. Honez gain, motor hauek diputazioenak dira eta beraz eskuz aldatzean erabiltzaile berriari berregokitzen diogu. Strikkerren, hau da, gurgildun aulkien aurrealdean topatzen den motorren pertsonalizazioa eta lanaren erraztasuna dira. Hauen diseinua nahiko orokorra baina, ahalik eta lesionatu gehienen beharretara egokitzen den bat izango da, horrela behar gehiago asetuko ditugu eta independentzia emango diegu bezero gehiagori. Lesionatuak orokorrean gazteak dira, hauei erraztasunak ematen, bizitzeko gogo gehiago ematen diegu eta euren lagunekin irteerak zein txangoak egitea ahalbidetzen diegu.

Diseinu hauek erabiltzaileen autonomia bermatuko dute, hainbat elbarri bakarrik bizi baitira eta ezin baitute laguntzaile baten soldata ordaindu. Gainera, motor hauek kalean ibiltzeko bizkortasuna eta arintasuna emango lieke bezeroei, baita praktikotasuna eta neke gutxiago izatea ere.

Erabaki hau gure inguruko hainbat elbarritasun kasu ezagutu, ikusi eta aztertu ondoren hartu genuen. Talde moduan garrantzi handia ematen diogu autonomiari eta pertsonen askatasunari. Gertuko kasu hauek bultzatu gintuzten proiektu honi hasiera ematera eta hauen beharrak asetze aldera erronka hau hartzen dugu.

